



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 9a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
 - IV.1. Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).
 - IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (7. or.).
 - IV.3. 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (7. or.).
 - IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (11. or.).
 - IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (11. or.).
- V. Kontu orokor bateratuaren laburpena (12. or.).
 - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (12. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (13. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (13. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (14. or.).
 - V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (15. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (16. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).
 - VI.2. Langileak (17. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).
 - VI.4. Transferentzia arruntak (19. or.).
 - VI.5. Inbertsioak (19. or.).
 - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).
 - VI.7. Hirigintza (21. or.).
 - VI.8. "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá, SA" (GEDEMELSA) udal sozietatea. (21. or.).

Eranskina: 2014ko kontu bateratuen oroit idazkia.


(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2014ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Lizarrako udalerrriak 15,39 km²-ko hedadura du, eta 13.695 biztanle zituen 2014ko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2014ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Sektorre Publiko Administratiboa, Udalak berak eta bere erakunde autonomo bakarrak, "Julián Romano" Musika Patronatuak, osatua.

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	10.667.099	11.400.680	131 ⁽¹⁾
Musika Patronatua	380.596	408.695	16
-Bateratzearen doitzeak	-256.453	-256.453	-
Guztizkoa, bateratua	10.791.242	11.552.921	150

(1) Kopuru honek gizarte enpleguko programako 15 parte-hartzaileak biltzen ditu. Haiekiko lan-harremana 2014ko abenduaren 30ean amaitu zen.

Udalak "Julián Romano" Musika Patronatua erakunde autonomoari egindako ekarpena 220.661 eurokoa izan zen. Ekitaldiaren amaieran ia guztiz ordainduta zegoen.

- Enpresen Sektorre Publikoa: 2006an, Udalak "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizorra, SA" (GEDEMELSA) enpresa sortu zuen, 60.500 euroko kapital sozialarekin, jabetza osoa Udalarena duena. Elkarre horrek ez du inolako jarduerarik egin sortu zenetik. 2014an, 3.235 euroko gastuak eta 2.447 euroko diru-sarrerak dauzka.

Udala Jurramendiko Mankomunitateko kidea da, eta horren bitartez uraz hornitzeko eta hondakinak biltzeko zerbitzuak ematen ditu. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkar-tean ere parte hartzen du. Partzuergoak 293.343 euroko gastua ekarri dio Udalari, eta L'Urederra Elkarteak, berriz, ez dio inongo gasturik ekarri.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Musika eskola		X		
Hirigintza	X			
Ur-hornidura			X	
Hiri hondakinak			X	
Kale garbiketa				X
Udal hilerria				X
Kultur etxea	X			
Liburutegia	X			
Gustavo de Maeztu museoa	X			
Haur Eskola	X			
Kontsumitzaileari informazioa emateko bulegoa				X
Gizarte zerbitzuak	X			
Etxeko arreta	X			
Kultur etxea	X			
Gazteen etxea	X			
"Tierra Estella" kirol-pabiloia				X
"Remontiva" frontoia				X
Berdintasuna	X			
Herritarrentzako Arreta	X			
Diru-bilketa exekutiboa				X
Lantegi-eskolak	X			
Udako igerilekuak				X
Udal-hiltegia				X
Los Llanos aisiarako zentroa				X
Aterpetxeak				X
Eremu urdina eta lurpeko aparkalekua				X

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Udalaren aurrekontua 2014ko otsailaren 6an onetsi zen. Kontuei dagokienez, Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko uztailaren 23an onetsi zituen.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraraz, bereziki.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako fiskalizazio-lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia azaltzen dugu. Bosgarren atalean kontu orokor bateratu horren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, Udalaren, haren erakunde autonomoaren eta haren mendeko sozietate publikoaren barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Horrez gainera, eranskin bat sartu da, Udalak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroi-tidazkiarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren erakunde autonomo langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Lizarrako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Lizarrako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Lizarrako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoak 2014an aurrera eramandako jardueran.

- Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.

- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako kontabilitateko egoera-orriak hartzen ditu:

- Toki entitatearen beraren eta "Julián Romano" musika patronatua erakunde autonomoaren kontua: aurrekontuaren likidazioa, aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- Udal sozietatearen urteko kontuak: balantzea, galeren eta irabazien kontua, ondare garbieren aldaketen egoera-orria eta oroitidazkia.

- Kontu Orokorraren eranskinak: oroitidazkia, egoera-orri bateratuak, zorraren egoera eta esku-hartzeari buruzko txostena.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertze teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; aztertu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

IV. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKOIRITZIA

Lizarrako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da, salbuespen bat ere baduena.

IV.1. UDALAREN 2014ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu ondasun eta eskubide guztiak jasotzen; hartara, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2014ko abenduaren 31n, 69,2 milioi eurokoa zen.

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

IV.3. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 11,15 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 21 handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 13,54 milioikoak dira. Aldaketa horiek, gastuei dagokienez, inbertsioen kapituluan egin dira; diru-sarrerari dagokienez, berriz, transferentzietan eta finantza-aktiboetan egin dira.

Aitortutako betebeharrak 10,79 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 80ko betetze-maila izan dute. Proporzio horren azalpena da, funtsean, aurreikusita zeuden inbertsioetatik ehuneko 37 egin direla.

Aitortutako eskubideek 11,55 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 88,2koa da.

Beren izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastuen ehuneko 89 egiten dute. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 96 dira; diru-sarreraren ehuneko 48, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 44 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 4 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzabidea	Kopurua
Langileak	51	Tributu bidezko diru-sarrerak	50
Bestelako gastu arruntak	39	Transferentziak	48
Inbertsioak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta inbertsioen besterentzea	2
Finantza-zama	2		
	100		100

Hona Udalaren 2014rako aurrekontu bateratuaren betetzeari eta betetze horrek 2013tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak (eurotan):

	2014	2013	Aldea, portzentajea 2014/2013
Aitortutako betebeharrak	10.791.242	10.363.348	4
Likidatutako eskubideak	11.552.921	11.320.557	2
Gastuen betetzea (%)	79	81	-2
Diru-sarreraren betetzea (%)	85	88	-3
Ordainketak (%)	94	90	4
% kobrantza	88	91	-3
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	9.731.662	9.324.717	4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	9.687.071	9.236.121	5
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	897.035	872.697	3
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	162.545	165.934	-2
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	11.049.524	10.744.787	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	5.763.350	5.673.660	2
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	463.397	575.771	-20
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	48	48	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	59	61	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	924.224	1.123.142	-18
Aurrekontu-emaizta doitua	1.636.921	1.305.451	25
Aurrezki gordina	1.362.453	1.508.665	-10
Finantza-zama (3.etik 9.era)	207.135	249.530	-17
Aurrezki garbia	1.155.318	1.259.136	-8
Zorpetze maila (%)	1,87	2,32	
Zorpetze muga (%)	12,33	14,04	
Zorpetze-ahalmena (%)	10,46	11,72	
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.234.643	2.842.580	14
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.115.290	2.398.395	30
Udalaren zor bizia	6.136.487	6.299.032	-3
Zor bizia biztanleko	448	421	6
Diru-sarrera arruntan gaineko zor bizia (%)	56	59	
Zor bizia / Aurrezki gordina	4,5	4,2	

Udalak, 2014an aurreko ekitaldian baino ehuneko 4 gehiago gastatu du (427.894 euro gehiago), funtsean transferentzien kapituluak gora egin duelako (491.357 euro).

Bestalde, diru-sarrerak ehuneko 2 handiagoak izan dira; hau da, 232.364 euro; igoera hori justifikatzen dute, nagusiki, tasa eta prezio publikoen eta transferentzien kapituluetan izandako igoerek.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa positiboa da, 0,92 milioi eurokoa; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak direla. 2013an, saldo hori ere positiboa izan zen, 1,1 milioi eurokoa.

Aurrekontu-emaizta doitua 1,6 milioi eurokoa da; aurreko urtean, berriz, emaitza 1,3 milioi eurokoa izan zen.

2014an, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate, 1,36 eta 1,15 milioi-koak, hurrenez hurren, eta ehuneko 10 eta ehuneko 8 jaitsi dira aurreko urteko balioekin alderatuta.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 1,87koa da, eta ehuneko 12,33ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berrietarako ahalmen ekonomikorik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina –hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea– positiboa izan zen: 3,1 milioi euro (2013an, berriz, 2,4 milioi eurokoa izan zen).

Epe luzeko zorra 6,1 milioi eurokoa zen 2014an; 2013an, berriz, 6,3 milioi eurokoa izan zen. Zor hori –zeina 448 eurokoa baita biztanle bakoitzeko– erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 56 da; ehuneko horrek ez du gainditzen gaur egun zor berriak hartzeko dagoen legezko muga (ehuneko 110). 2014an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 4,5 urte beharko liriteke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Lizarrako Udalak 2006-2014 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kap	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Zuzeneko zergak	3.379.976	3.586.289	3.690.556	3.781.479	3.883.146	3.771.710	3.904.817	4.035.536	4.033.453
2	Zeharkako zergak	1.107.773	920.130	1.879.159	461.378	410.898	297.003	231.238	312.762	266.823
	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.279.762	1.462.989	1.671.159	1.904.701	1.428.400	1.476.303	1.423.706	1.325.362	1.463.073
4	Transferentzia arruntak	5.008.495	5.014.879	5.747.332	5.921.668	5.408.169	5.595.835	5.150.195	4.947.117	5.131.010
	Ondare bidezko eta herri-lurren aprobetxamenduko diru-sarrerak	137.926	204.400	253.844	574.304	409.288	387.386	-427.397	124.010	155.164
6	Inbertsio errealak beste-rentzea	6.096	1.122.592	685.611	1.944.115	2.000	2.000	1.004.338	80.000	40.000
7	Entitateari egindako transferentziak	889.079	8.098.735	4.536.123	4.828.690	5.993.597	1.546.487	418.319	495.770	463.397
9	Finantza-pasiboak	5.472.084	0	0	0	0	0	0	0	0
	Guztira	17.281.191	20.410.014	18.463.784	19.416.335	17.535.498	13.076.724	11.705.216	11.320.557	11.552.920

Gastuak (aitortutako betebehar garbiak)

Kap.	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Langile-gastuak	5.135.190	5.183.448	5.851.769	6.008.245	5.941.947	6.061.145	5.390.318	5.366.786	5.537.666
2	Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	3.374.211	3.492.309	3.837.080	3.695.712	3.556.542	3.413.740	2.943.012	3.120.072	2.918.785
3	Finantza-gastuak	74.978	132.610	106.624	162.217	114.715	173.643	151.254	88.596	44.591
4	Transferentzia arruntak	899.794	641.137	890.454	661.906	641.682	575.802	602.168	749.263	1.230.620
6	Inbertsio errealak	5.125.360	7.546.614	12.707.358	7.814.311	5.887.038	2.908.101	938.793	872.697	897.035
7	Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
8	Finantza-aktiboak	60.500	0	6.944	0	0	0	0	5.000	0
9	Finantza-pasiboak	144.171	172.759	135.875	152.128	246.193	154.849	156.145	160.934	162.545
	Guztira	14.814.204	17.168.877	23.536.104	18.494.519	16.388.117	13.287.280	10.181.690	10.363.348	10.791.242

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2011ra arte inbertsio-prozesu adierazgarria izan da, zeinak kapital-transferentzien bidezko diru-sarrera handi samarrak ekarri baititu. Data horretatik aurrera, ikusten da gastu arruntari eutsi egin zaiola, eta zergen bidezko diru-sarrerak igoera txiki bat izan dutela.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da 2011tik 2014ra.

Adierazlea	2011	2014	Aldea (%), 2014/2011
Zorpetze ahalmena	% 9,97	% 10,46	5
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	845.292	3.115.290	269
Inbertsioa biztanleko	204	66	-68
Gastu arrunta biztanleko	717	711	-1
Tributu diru-sarrerak biztanleko	389	421	8

Datu horietatik ondorioztatzen da 2011tik 2014ra Udalak inbertsioak gutxitu dituela, gastu arrunteko bolumenari eutsi diola, biztanle bakoitzeko zergen bidezko diru-sarrerak hobetu dituela, zorpetze-ahalmena handitu duela eta modu adierazgarrian handitu duela gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina.

Azken batez, Udalak aurrezki garbia lortu du, zorpetze-ahalmena dauka eta gastu orokorretarako 3 milioi eurotik gorako diruzaintza-gerakina dauka.

IV.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	924.224
Doikuntzak	471.910
Finantzatzeko ahalmena	1.396.134

Ikusi da Lizarrako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintza betetzen duela, bai eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013koa gehi ehuneko 1,5); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honen aurreko txostenari erreparatuta –2013ko ekitaldiari buruzkoa da–, hartan adierazi genuen oraindik ere ebazteko daudela, besteak beste, txosten honen VI. atalean berresten den bezala, izaera administratibo eta kontabilitatekoa duten gomendio batzuk, ekitaldi horretakoak eta aurrekoak; haien artean, honakoei buruzkoak daude:

- *Aurrekontu orokorra dagokion ekitaldiaren aurreko urtearen abendua 31 baino lehen osatzea eta behin betiko onartzea, kudeaketarako funtsezko tresna izan dadin. Horri dagokionez, aipatu beharra dago 2015eko abenduaren 30eko Osoko Bilkurak 2016rako aurrekontua onetsi zuela.*
- *Oroitidazkian jasotzea urteko kontuak errazago ulertzeko beharrezkoa den informazio guztia; besteak beste, hirigintza-jarduketei buruzko datuak.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitea eta onestea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkutzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*
- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*
- *Udal-sozietateak jarduerarik ez duenez, erakundeak berak existitu behar duen aztertzea.*

V. KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebehargarbiak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak	Ordainketa ehunekoa	Ordaintzeko dagoena
1 Langile-gastuak	6.084.409	6.026.318	5.537.666	92	5.490.686	99	46.979
2 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	3.455.474	3.553.075	2.918.785	82	2.499.686	86	419.099
3 Finantza-gastuak	112.651	83.621	44.591	53	20.621	46	23.970
4 Transferentzia arruntak	901.447	1.272.246	1.230.620	97	1.128.478	92	102.142
6 Inbertsio errealak	437.842	2.419.835	897.035	37	807.953	90	145.182
7 Kapital-transferentziak	0,00	23.525	0,00	0	0		
8 Finantza-aktiboak	0	0,00	0,00		0		5.000
9 Finantza-pasiboak	164.625	164.625	162.545	99	162.545	100	-
Guztira	11.156.448	13.543.246	10.791.242	80	10.109.969	90	681.273

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantzak	Kobrantzen ehunekoa	Egiteko dauden kobrantzak
1 Zuzeneko zergak	3.709.336	3.709.336	4.033.453	109	3.585.072	89	448.381
2 Zeharkako zergak	325.000	325.000	266.823	82	251.953	94	14.870
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.175.783	1.175.783	1.463.073	124	1.235.954	84	227.119
4 Transferentzia arruntak	5.406.406	5.155.249	5.131.010	99	4.819.000	94	312.010
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	119.897	119.897	155.164	129	153.576	99	1.588
6 Inbertsio errealak besterentzea			40.000		40.000	100	0,00
7 Kapital-transferentziak	255.401	255.401	463.397	181	113.615	25	349.782
8 Finantza-aktiboak	0,00	2.637.955		0	0		0
9 Finantza-pasiboak	164.625	164.625	-	0	40.000.	100.	0
Guztira	11.156.448	13.543.246	11.552.921	85	10.199.171	88	1.353.751

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	11.552.921	11.320.557
- Aitortutako betebeharrak	10.791.242	-10.363.348
Aurrekontu-emaiza	761.680	957.209
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-425.620	-350.189
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	304.352	320.571
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak	996.510	377.860
Aurrekontu-emaiza doitua	1.636.921	1.305.451

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	711.661	588.259
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.353.751	1.060.945
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	3.644.039	3.529.692
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	-10.549	-24.880
+ Ordainketen itzulketak	-	-
- Bilketa zaileko eskubideak	-4.275.579	-3.977.499
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	681.272,66	-
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.013.953	1.350.295
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	681.273	1.034.513
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	7.102	4.325
+ Diru-sarrerren itzulketak	0,00	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	325.579	311.457
- Aplikatzeko dauden gastuak	-	-
+ Diruzaintzako funts likidoak	3.536.935	3.604.616
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.234.643	2.842.580
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	90.933	365.202
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	0	78.983
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.115.290	2.398.395

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2013
A Ibilgetua	69.236.591	70.570.379
C Zirkulatzaila	4.320.719	4.295.045
8 Zordunak	726.227	631.142
9 Finantza-kontuak	3.549.412	3.607.403
10 Aktiboaren beste kontu batzuk	45.080	56.500
Aktiboa, guztira	73.557.310	74.865.424

Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	66.319.950	67.113.624
1 Ondarea eta erreserbak	37.136.350	37.922.397
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-830.717	-780.767
3 Kapitaleko diru-laguntzak	30.014.317	29.979.721
C Epe luzeko hartzekodunak	6.136.487	6.299.032
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	6.136.487	6.299.032
D Epe laburreko hartzekodunak	1.100.873	1.452.768
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.015.728	1.352.922
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	12.189	38.475
8 Pasiboaren beste kontu batzuk	72.956	61.371
Pasiboa, guztira	73.557.310	74.865.424

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0	39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	633.041	642.772
61 Langile-gastuak	5.569.493	5.398.664	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	933.148	781.982
62 Finantza-gastuak	44.569	88.419	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.068.199	3.082.732
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	746.571	736.438
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	2.911.283	3.116.059			
65 Gizarte prestazioak	7.777	8.187	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	5.387.464	5.258.774
67 Transferentzia arruntak	1.454.972	1.027.548	77 Kapitalaren gaineko zergak	485.508	529.128
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	480.897	24.850
69 Ekitaldiko zuzkidurak amortizazio eta horniduretarako	2.523.200	2.182.322	79 Beren jarduerara aplikatutako hornidurak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	54.272	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	777.303	818.795
Guztira	12.512.130	11.875.471	Guztira	12.512.130	11.875.471

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	777.303	818.795	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	54.272
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)			82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	20.589	38.112
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	74.003	54.356	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Etekin garbia, guztira	0		89 Galera garbia, guztira	830.717	780.767
Guztira	851.306	873.151	Guztira	851.306	873.151

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Kontuen Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorioztapen eta gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Udalak, 2014ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Udalaren 2014rako aurrekontua. Behin betiko onespena 2014ko martxoaren 12an argitaratu zen.

- Ez da ikusi 2014koak izan eta 2015ean kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da; ez da gaurkotu, eta Udalaren ondasun guztiak ez daude bertan txertatuta. Hala ere, 2003. urteaz geroztik udal-zerbitzuei atxikitako udal-ondasunen zerrenda bat du, kostuak kalkulatzeko; ondasunen altak zerrenda horretan adierazten dira, eta ez inbentarioan; ez dago kontabilitatearen eta inbentarioaren arteko loturarik. Erabilera publikoko ondasunak, behin erabilera orokorrerako eman ondoren, kontabilitatean ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako ondarearen kontura.

- Udalak aurkeztutako oroitidazkian ez dira jasotzen Gedemelsa sozietate publikoaren urteko kontuak –sozietate horrek ez du jarduerarik–; halaber, haren datuak balantze bateratuan jasotzen dira. Era berean, aipatutako oroitidazkiak ez dakar daturik hirigintza-jarduketei buruz eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zerrendari buruz.

- Udala sartuta dagoen prozedura judizialak direla-eta, honako hau nabarmendu behar dugu:

- a) 317/2014 Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2014ko urriaren 10eko 3028 zenbakiko ebazpenaren aurkakoa. Azken horrek ebatzi zuen Oncinedako hirigintza hitzarmena ez betetzearen ondoriozko kalte-ordaina jasotzeko aurkeztutako eskaerari buruzko 2014-02-27an Udalak egin zuen erreklamazioa tazituki ezestearen aurka aurkeztutako 14-02137 gora jotzeko errekurtsua. Epaia emateko zain dago. Erreklamaturako zenbatekoa 607.272 eurokoa da.

- b) 24/2015 Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Oncinedako 2006-09-05eko hirigintza-hitzarmenaren ez betetzeari buruzko 2014-09-29ko erreklamazioaren ustezko ezestearen aurka aurkeztua. Epaia emateko zain dago. Erreklamaturako zenbatekoa 1.117.629 eurokoa da.

- c) Epe luzerako zor biziaren amortizazio-egutegia, abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2.015	164.511,41	2,68	2,68
2.016	164.688,56	2,68	5,36
2017-2021	1.719.636,35	28,02	33,39
2022-2026	1.362.550,25	22,20	55,59
2026	2.725.100,49	44,41	100,00
	6.136.487,05	100	

Hona gure gomendioak:

- *Kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen prestatzea eta behin betikoz onestea aurrekontu orokorra, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan dadin.*

- *Oroitidazkian urteko kontuak ulertzen laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia sartzeari; besteak beste, hirigintzako jardueri buruzko datuak eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zerrenda.*

- *Udal ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutzea eta aplikatzea.*
- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak– eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*
- *Ibilgetutik kentzea azpiegituretan eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratuak 5.537.666 euro egiten du; 5.246.904 euro Udalari dagozkio, eta 326.554 euro, berriz, "Julián Romano" Musika Patronatuari. 35.792 euroko bateratze-doikuntza bat erregistratu da. Gastu horiek 2014an sortutako guztiaren ehuneko 51 eta gastu arrunten ehuneko 57 egiten dute.

Udalarentzat, 2013ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 3 igo da.

Udalaren langile-gastuak		2014	2013	Aldea (%) 2014-2013
10	Goi-karguak	135.418	136.198	-1
11	Kabineteetako behin-behineko langileak	52.263	51.764	1
12	Funtzionarioak	2.070.870	2.070.222	0
13	Lan-kontratudun langileak	1.209.692	1.040.594	16
16	Enplegua ematen duenaren kontuko kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.778.660	1.778.286	0
I. kapitulua, guztira		5.246.904	5.077.064	3

Osoko Bilkurak 2014ko otsailaren 6an onesti zuen hasiera batez Udalaren eta "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2014ko ekitaldiko plantilla organikoa. Behin betiko onespena 2014ko martxoaren 28an argitaratu zen. Hona hemen haren osaketa:

Entitatea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	94	25
"Julián Romano" Musika Patronatua	16	-
Guztira	110	25

Datu horietatik ondorioztatzen da bete gabe dauden postuak ehuneko 23 inguru direla, Udalean denak.

2014ko eta 2013ko abenduaren 31n, honakoak dira Udalaren langileak:

Langileak	2014	2013
Izendapen askea	1	1
Funtzionarioak	61	64
Lan-kontratudun finkoak	5	5
Aldi baterako lan-kontratudunak	67	61
Guztira	134	131

Aldi baterako langileen barruan, lantegi eskolako ikasleak daude, 18 langile (ikasle), bai eta gizarte enplegu babestuko 15 langileak ere, nahiz eta horiek 2014ko abenduaren 30ean amaitu zuten beren lan-harremana.

Zehazki Udaleko langileak direnak arlo hauetara atxikirik daude:

Arloak	2014	2013
Bulegoak	11	11
Polizia	27	27
Obra-brigada	5	7
Lorategietako brigada	4	3
Kultur etxea	2	2
Arlo ekonomikoa	3	3
Gizarte ongizatea	14	13
Emakumea	2	1
Ikastetxe publikoa	5	3
Hirigintza	4	5
Liburutegia	-	-
Museoa	2	2
Kirolak	1	2
Gazteria	4	4
INFOLAN	1	1
0-3 urteko ikastetxea	11	10
Musika-eskola	1	1
Margolaritza ikasgelak	3	3
Euskara	1	1
Honaino, guztira	101	99
Oinarrizko errentak	-	-
Ostalaritza-tailerra	18	-
Turismo tailerra	0	18
Gizarte enplegu babestua	15	14
Guztira	134	131

"Julián Romano" Musika Patronatuko 2014ko eta 2013ko abenduaren 31ko langileak ez dira aldatu, 16 langile izaten jarraitzen baitute.

Gastu horien lagin bat aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egingako lanerako ezarritakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

2014ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetako betebeharrak aitortu bateratuek (2.918.786 euro) ekitaldiko gastu osoen ehuneko 27 egiten dute, eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 30. 2013. urtearen aldean, ehuneko 6 jaitsi dira.

2014ko ekitaldian egindako esleipenen lagin bat aztertu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)
Tailer-eskolako sukaldea	Hornikuntza	Publiziterik gabe negoziatua	3	49.587	43.450
Zezenketak	Zerbitzu-emakidak.	Irekia (Europar Batasuneko atalasetik beheiti)	1	51.637	50.637
Komun publikoen garbiketa	Bertaratzea	Irekia	1	21.671	21.600

Kapitulu horretako gastu bateratutik, Udalari 2.867.308 euro dagozkie, eta "Julián Romano" Musika Patronatuari, berriz, 51.477 euro.

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espedienteak izapidez zean dagoen kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da; halaber, ikusi da gastuak

behar diren ordain-agirietan justifikatuta daudela eta zuzen kontabilizatu direla. Hala eta guztiz ere, ikusi da zenbait kontratutan gairatu egin dela araudian finkatutako gehieneko indarraldia.

Gomendatzen dugu kontratu-espeditenteen indarraldiaren gaineko kontrola areagotzea eta garaiz planifikatzea kasuko lizitazio prozeduraren hasiera.

VI.4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

1,27 milioi euroko behin betiko aurreikuspenekin, kapitulu horrek 1,23 milioiko gastuak izan ditu; aurreko urtean baino ehuneko 64 gehiago da hori.

Igoera horren azalpena da, funtsean, azaltzen da EIOZaren itzulketengatik: 0,6 milioi egiten dute (ikus VI.6 atala). Aurreko urteetan eskatu eta 2014an ordaindutakoak dira.

Itzulketak kontuan hartu ezean, 2014ko gastuaren zenbatekoa zer edo zer txikiagoa da 2013koa baino.

VI.5. INBERTSIOAK

Inbertsioen kapituluko aurrekontu bateratua, 2014rako, 2.419.835 eurokoa izan da.

Egindako inbertsioak, 897.035 euro egiten dutenak, Udalarri dagozkie guztiz Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 8 egiten dute. Betetze-maila ehuneko 37koa izan da, eta 2013an egindako inbertsioekin alderatuta, ehuneko 3 igo da.

2014ko ekitaldian egindako honako esleipen hau aztertu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BE-Zik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)
Remontival ikaste-txeko leihoak. 2. fasea.	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	2	39.965	39.290

Aurreko berrikuspenera eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espeditenteak izapidez zuzen dagoen kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da, eta gastuak zuzen kontabilizatu direla.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuek 11.552.921 euro egiten dute; 152.241 "Julían Romano" Musika Patronatutik heldu dira, bateratzearen doitzak deskontatu ostean. Betetze-maila ehuneko 85ekoa izan da; 2013an, ordea, ehuneko 88koa izan zen.

Diru-sarreraren ehuneko 96 eragiketa arruntei dagozkie, eta ehuneko 4 kapital-eragiketeei.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubide bateratuak ehuneko 2 igo dira, eta alde hau izan dute, atalez atal (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2014/2013
	2014	2013	
1 Zuzeneko zergak	4.033.453	4.035.535	0
2. Zeharkako zergak	266.823	312.762	-15
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.463.073	1.325.362	10
4. Transferentzia arruntak	5.131.010	4.947.117	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	155.164	124.010	25
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	11.049.524	10.744.786	3
6. Inbertsio errealeen besterentzea	40.000	80.000	-50
7. Kapital-transferentziak	463.397	495.771	-7
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	503.397	575.771	-13
Diru-sarrerak, guztira	11.552.921	11.320.557	2

2014ko ekitaldian, 2013ko ekitaldian aplikatu ziren tasa eta tarifa berak aplikatu dira.

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen bilakaera erakusten dugu:

Zerga	2014	2013	Aldea (%) 2014/2013
Lurraren kontribuzioa	2.381.053	2.389.128	0
Ibilgailuak	746.571	736.438	1
Lurren balio-gehikuntza	485.508	529.128	-8
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	420.323	380.840	10
EIOZa	266.823	312.762	-15
Guztira	4.300.278	4.348.297	-1

Udalaren zergen bidezko diru-sarrerek ehuneko 1 egin dute behera 2013rekin alderatuta. Nabarmentzekoa da EIOZak izan duen jaitsiera, ehuneko 15ekoa, eta lursailen balio-gehikuntzaren igoera, ehuneko 8koa. Bestalde, JEZak ehuneko 10 egin du gora.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2705	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,37-2,94	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	17,10	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5

Diru-sarrereren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu ahal izan dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Nabarmentzekoa da 2012ko ekitaldian Udalarik beste ekitaldi batzuetan EIOZaren kontzeptuan ordaindutakoen itzulketak eskatu zaizkiola -892.457 euro egiten dute-. Eraiki behar ziren baina, azkenean, osorik eraiki ez ziren etxebizitza-sustapenen EIOZari dagozkie, eta bi enpresari ordaindu behar zaizkie. Haiekin, itzulketak-formula bat adostu zen, geroraturako ordainketa baten bitartez.

Kopuru horietatik, 2013an, 128.708,38 euro ordaindu dira (Transferentzia arrunten gastuei dagokien 4. kapituluaren aurka kontabilizatu dira) gehi erreklamazioetako baten berandutza interesak; beste erreklamaziotik, 2014an, 608.913,61 euro gehi berandutza interesak ordaindu dira. Itzulketari buruzko akordioak 5 urtera bitarteko aldia finkatzen zuen itzulketarako, Udalaren gaitasun ekonomikoaren arabera.

Inbertsioen besterentzeei buruzko kapituluak 2014an 0 euroko behin betiko aurrekontua dauka, eta 40.000 euroko aurrekontu-betetzea (2013an, 80.000 euro izan ziren).

2014an, besterentze bakarra bi garaje-plazena izan da, autobus geltokiko lurrazpiko aparkalekukoak.

VI.7. HIRIGINTZA

Udalak bere baliabideekin egiten ditu hirigintzako zereginak, Hirigintza Zerbitzuen Arloaren birtartez. Jarduera berekiak gartzeko esleitutako langileak honakoak dira: arkitekto bat (bulegoburua), udal zaindari bat eta bi administrari ofizial.

Horrez gainera, Udalak kontratu bat gauzatu du hirigintzaren alorreko (ingeniaritza) kanpoko aholkularitza-entresa batekin, eta horiek 2014an 9.957 euroko gastua sortu dute guztira.

2014ean indarrean dagoen Udalaren hirigintza plana 1996an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta haren garapena amaitu da.

Txosten hau egiteko datan, behin betiko onetsi da plan berria, eta 2015eko otsailaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik, ezta artxibategirik ere. Hirigintzako sailetik, 2011ko martxoaren 17an, proposamen bat aurkeztu zen: "Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxibategia antolatzeke eta funtzionatzeko arauak", baina haren edukia oraindik ez da onartu.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu erregistroa.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintzako hitzarmenak erregistratzea eta artxibatzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, hirigintzari buruzko legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako.*

VI.8. "ENTIDAD PARA LA GESTIÓN DEL DESARROLLO MUNICIPAL Y SOCIOECONÓMICO DE ESTELLA-LIZARRA, SA" (GEDEMELSA) UDAL SOZINETATEA.

"Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarra, SA" sozietate anonimo pertsona bakarrekoa da, eta Lizarrako Udala da akziodun bakarra; 2006an sortu zen enpresa, 60.500 euroko kapital sozialarekin.

Sozietatearen Batzar Nagusiak, 2015eko maiatzaren 21ean, sozietatearen kontuak onesteko akta eskuratu dugu. Kontuek honakoak jasotzen dituzte: 2014ko egoera-balantzea, galeren eta iragazien kontua eta ondareko aldaketen egoera-orria.

Udal-sozietate horren egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua, 2014ko abenduaren 31n, honako hauek izan ziren:

Egoera-balantzea

Aktiboa	2014	2013	Ondare garbia eta pasiboa	2014	2013
Aktibo ez-arrunta	14.520	-	Ondare garbia	57.903	58.691
Aktibo korrontea	45.158	58.666	Kapitala	60.500	60.500
Zordunak	56	132	Borondatezko erreserbak	638	638
Finantza-inbertsioak epe laburrera	45.080	56.500	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa	-2.447	-
Eskudirua	22	2.034	Ekitaldiko emaitza	-788	-2.447
			Pasibo arrunta	1.775	-25
			Merkataritzako hartzekodunak	1.775	-25
Aktiboa, guztira	59.678	58.666	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	59.678	58.666

Galeren eta irabazien kontua

	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
A) Ustiatzearen emaitza	-836	-2.679
7. Ustiakearen bestelako gastuak	-836	-2.679
B) Emaitza finantzarioa	48	232
b) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	48	232
C) Zergen aurretiko emaitzak	-788	-2.447
Mozkinen gaineko zerga	-	-
Ekitaldiko emaitza	-788	-2.447

Diru-sarrerak etorri dira Udalak jarritako kapitalaren epe finkoko ezarpenetik; gastuak, berriz, kontabilitatea eramateko eta urteko kontuak egiteko lansari profesionaletatik eta ordaindu beharreko sozietateen gaineko zergatik.

Gomendatzen dugu udal-sozietatea likidatu eta desegin dadila, jarduerarik ez baitu.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko martxoaren 18an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

